

Ardoaren hiriburuetan bidaiari

Munduko Ardoaren Hiriburu sarea osatu dute, eta Bilbok Errioxarekin bat egin du turismoari begira

MIKEL CARRAMIÑANA
Bilbo

Enoturismoa gero eta gehiago zabaltzen ari den bidaiatzeko modua omen da. Hori da, behintzat, Great Wine Capitals Travel Network (GWC) sareko kideek uste dutena. Duela bost urte hasi zituzten elkarren arteko harremanak bere burua ardoaren hiriburutzat jotzen duten zortzi hiriek eta, orain, turismo baliabideak bateratzeko elkar-lana abiatu berri dute, ardoa gustuko dutenei munduan zehar antolatutako ibilbideak egiteko aukera izan dezaten. Euskal Herriak badu ordezkaritzarik ardoaren talde VIP honetan, Bilbok bere eskaintza turistiko Errioxako (Espainia) mahastiekin batera ageri delako.

Bilbo-Errioxarekin batera, ia kontinente guztietako zazpi hiriek osatzen dute enoturismoa sustatzearen aldeko munduko hiriburu sarea: Lurmutur Hiria (Hegoafrika), Melbourne (Australia), Mendoza (Argentina), Bordele (Frantzia), Porto (Portugal), San Frantzisko (Ameriketako Estatu Batuak) eta Florentzia (Italia). Azken bi hauek, oraindik ez dute sortu bidaiari turistikoak eta enoturismoa uztartzeko agentziarik, baina lanean ari dira beharrezko azpiegiturak martxan jartzeko.

Bilboko Merkataritza Ganbaran aurkeztu zuten atzo GWC sarea eta ordezkaritza desberdinetako kideek hartu zuten parte agerral-



Enoturismoan, upategiak ezagutzeko aukera ez ezik, mahats bilketaren berri bertatik bertara jakiteko aukera ematen dute bidaletan. JUANAN RUIZ / ARCAZ PRESS

dian. Portoko hiriak eskaintzen dituen dohainen berri eman zuen Joao Falcao Vinitur agentziako ordezkaririk eta, bide batez, ardoaren hiriburu taldeak aurreikusitako proiektuetako bat iragarri zuen, Ardoaren Munduko Ibilbidearena, hain zuzen ere.

GWC sareko hiriburu bakoitzean 4 egun igarotzeko bidaia eskainiko dituzte agentziek eta, ardoaren aitzakiarekin, hiri bakoitza eta inguruko kultur gunea eta azpiegiturak ezagutzeko ibilbideak proposatuko dituztela azaldu zuen. Portugalen prestatu duten lau

eguneko egonaldia deskribatu zuen Falcao, «Portoko alde zaharra ezagutzeko erabiliko genuke lehenengo eguna, taberna tradizionaletan bertako produktuak dastatzeko aukera emanda. Artea eta Portugalgo eralkin modernoak bisitatuko genituzke eta kostaldeko mariskoa hartuko genuke bigarren egunean. Hirugarrena gazteluak eta santutegiak bisitatzeko erabiliko genuke eta, laugarrenean, azkenik, Duero zonaldeko mahastiak ezagutuko genituzke».

Julio Daherrek, bestetik, Mendozako upategi eta mahastien es-

kaintzari buruz aritu zen, Hego Amerikako ardogintza gunerik garrantzitsuenak dela azpimarratuta.

ARDOAREN KULTURA. GWC sareko ordezkarien arabera, ardoaren kultura gero eta garrantzitsua da munduan eta, turismoari dagokionez, herri bateko kultura ezagutu eta ohituretara hurbiltzeko modurik onenetarikoa da enoturismoa. Euskal Herrian, «gastronomiak duen ezinbesteko lekua kontuan izanik, ardoaren kultura bideragarria izan daiteke», halaxe esan

zuen atzoko agerraldian Bilboko Merkataritza Ganbarako lehendakariorde Federico San Sebastianek.

Ardoaren kultura bultzatu eta enoturismoa sustatzeko helburuaz gain, David Elexgarai Romotur agentziako kideak ohartarazi zuenez, «turismo mota hau ahalik eta jende gehiagorengana zabaltzeko asmoa dugu». Horretarako, «goi mailako turismoa» denik baztertu zuen eta, azkenik, enoturismoa ahalik eta eskuragarriagoa egiteko lan egiten dutela gaineratu zuen.

DAVID ELEXGARAI Romotur agentziako produktu zuzendaria

«Euskal Herriko historia eta hizkuntza oso erakargarriak dira turistentzat»

M. C.
Bilbo

Great Wine Capitals Travel Network sarea osatzen duten herrialdeetako bakoitzak turismo eskaintza bateratu eta bidaiari eskaintzeko ardura bere gain hartzen duen agentzia sortu behar du. Bilbo-Errioxako eskaintza Romotur izeneko taldeak kudeatzen du. Bizkaiko hiriburuak dituen baliabide turistikoak eta Errioxako lurraldeak biltzen dituen upategi bateratzea da, hain zuzen ere, David Elexgarai Romotur agentziako produktu zuzendariaren lana.

Zer eskaintzen du, hain zuzen, enoturismoak?

Ardoaren aitzakian turismoa egin nahi dutenek, gehienetan, upategi jakin batzuk bisitatu nahi dituzte. Gure lana da horri lotutako bestelako zerbitzuak eta aukerak eskaintzea. Ardoaren hiriburuak gauza biak uztartzen dituzte, ardoaren kultura, batetik, eta turismoa, bestetik. Askotan ezagunena ez da onena.

Bilbon, esate baterako, zer-nolako bidaia eskainiko zenioke enoturismoan datorren bati?

Edozein bidaiari agentziak eskain dezakeena eta, horretaz aparte,

bestelako aukerak, esate baterako, Bilboko txoko bereziren batean ardo bat hartu edota bazkaltzeko aukera eman.

Bilboko Guggenheim edo Errioxako upategiak. Zein da ezagunago munduan?

Eremu bakoitzean, artean bata, eta ardoan bestea, puntakoak dira biak, baina, nire ustez, Bilboko museoa ezagunagoa da. Maila gorenekoak dira biak.

Ardoaren hiriburu sarea aspaldikoa bada ere, turismo agentziak oraintsu egin duzue bat egitasmoarekin, ezta?

Bai, Bilboko izan da lehenengo aurkezpena. Laster ekingo dugu munduan zehar aurkezteari.

Orain arte, denbora laburrean, emaitza oparoak izan ditu gure elkarlanak. Helburu komuna gurea ikusita, turistek ardoaren hiriburu guztiak ezagutzea ditzaten, erraza izan da batera aritzea.

Museoak alde batera utzita, zeintzuk dira Bizkaiko ezaugarriak ezagunetarako? Gastronomia izango litzateke aipatu beharreko lehenengoa eta, seguruenik, euskal kultura bera, Euskal Herriaren historia eta hizkuntza oso erakargarriak dira turistentzat.

Herri desberdinetako agentziak izanda, ez al da zailtasun bat bidean agertu?

Kalitate estandarrak bateratzea izan da garrantzitsua, baina ez dugu inolako arazorik izan adostasunik lortzeko. Gurekin bidaia-tzen dutenek badakite ardoaren hiriburu guztietan eskaintako zerbitzuaren kalitatea esanahi bera dela.

Romotur taldeak aurretik eskaini al du enologiarekin lotutako bidaiari?



MIKEL CARRAMIÑANA

Bai, duela zortzi urte inguru hasi ginen ardo eta turismoaren arteko eskaintza zabaltzen. AEBetako bezeroak izan ditugu, batez ere, orain arte. Askotan, bidaiariaren arabera ibilbideak prestatzen ditugu, bakoitzaren aukera, aurrekontua eta gustuetara egokitu-tako bidaia.